

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Irlanda

Sinn Fein alderdi konferentzia (*Ard Fheis*) egiten ari da gaur Dublinen. Ard Fheis berezia dela esango nuke. Mary Lou McDonald eta Michelle O'Neill leidergoan egonkortu eta alderdia haratago eramatea lortu dute. Ez da erraza Gerry Adams eta Martin McGuinness bezalako buruzagiak ordezkatzeko. Barne autoritatea eta kohesioa mantendu eta gainera kanpora begira karisma, ezagutza eta errespetua bereganatzeko.

Michelle O'Neill zerrendaburu, Sinn Fein alderdi bozkatuena bilakatu da Irlandako iparraldean. Bazirudien demografia izango zela errepublikanoek iparraldean hauteskundeak irabazteko bidea, baina ez, *sorpasso* demografikoa gauzatu aurretik lortu du garaipena Sinn Feinek. Eta horrek badu, sinbolikoki bada ere, bere garrantzia. Gobernua osatu ezinik, baina esango nuke Sinn Feinek eta Michelle leidergoa indartzen jarraitzen dutela. Brexitak eta horren ondorioz Erresuma Batuak bizi duen sistema "kaos" orokorrak ez du Brexita babestu zuten unionisten alde egiten.

Irlandako hegoaldean, errepublikan, Mary Lou McDonald oposizioburua gero eta gertuago dago *taoiseach* (lehen ministro) bilakatzen. Inkesta guztien arabera, gaur Sinn Feinek irabaziko lituzke irlandar hauteskundeak.

24 urte pasatu dira 1998ko apirilaren 10ean Ostiral Santuko Bake Akordioa sinatu zenetik. George Mitchell senatari estatubatuarrek gidatu zuen elkarrizketa prozesua eta berak publikaturiko memoria liburuan azaltzen duenez, akordioa publiko egin baino 10 minutu lehenago ez zegoen aldean arteko adostasunik. Eta apirilaren 10a zen, hain zuzen, aurrez adosturiko arauen arabera akordioa erdiesteko azken egun posiblea. Elkarrizketa eta negoziazio prozesu hori apirilaren 10ean amaitzen zen, akordioarekin edo gabe. Akordioari baietza ematen azkenak unionistak izan ziren.

Adostu eta publiko egin arteko 10 minutu horietan akordioa sinatu zuen pertsona bakoitzak pentsatu zituen jakin nahiko nituzke. Gerry Adams eta Martin McGuinness kenduta inork gutxik pentsatuko zukeen

2022an Sinn Feinen egoera dena izan zitekeenik. Edo akaso bai, eta horrexegatik, hain zuzen, izan ziren unionistak akordioa sinatzen azkenak; orduan eta egun jarra berdina mantenduz, Stormonteko gobernu osaketa blokeatzen jarraitzen dute. Orduan ez bazien funtzionatu are gutxiago funtzionatuko die egun.

Sinn Feinek, orduan eta egun, helburu politiko argi eta nagusia adierazi du: irlaren batasuna. Bake akordioak irlaren batasuna posible egiteko bidea arautu zuen. Eta araudi adostu horrek «argitasun lege» moduko bat, bakea eta gobernagarritasuna ekarri zituen. Akordio onargarria alde guztientzat. *Win win*. Zergatik? Batzuek uste zuten arauturiko bide hori ez zela sekula ibili beharko, hori behartzeko egoera politikorik ez zelako sekula iritsiko, eta ondorioz, *statu quo*a inposatuko zela. Izan ere, *border poll* (erreferendumak) mekanismoa aktibatuko duten alderdiak behar dira ipar zein hegoaldeko gobernuetan. Eta 1998an baziren hori sekula gertatuko ez zela uste zutenak. Besteentzat, batasunerako mekanismoa

24 urte pasatu dira 1998ko apirilaren 10ean Ostiral Santuko Bake Akordioa sinatu zenetik. Denborak eta errealitateak arrazoia eman die. Posible zen eta gainera lortu egin dute, bi gauza ezberdin baitira

nazioarteko akordio eta arau bilakatu izana garantia nahikoa zen bide baketsu eta demokratikoen bidez borrokan jarraitu ahal izateko. Eta 24 urte beranduago errealitateak arrazoia eman diela dudarik ez dut. Posible zen eta gainera lortu dute, zeren bi gauza oso ezberdin dira posible izatea eta lortzea.

Tendentziak, iragarpen onak, ekintzekin konfirmatu behar dira, txarrak aldarazi behar diren bezala, istorio honetan irakaspenen bat badago, hori, etorkizuna determinatua ez dagoela baita. Norbere ondo eginak eta okerrak baitira errealitatea zizelkatzen dutenak, atzo, gaur eta bihar. 1998ko apirilaren 10eko 10 minutu horietan edozer okertu izan balitz... •